


Gobernuak Konstituzioa ez duela aldatuko berretsi du Egiagaraik

«Are gutxiago autodeterminazio eskubidea onartzeko bada», zehaztu du

Juan Manuel Egiagarai, Administrazio Publikoetarako ministroak Espainiako Gobernuak Konstituzioa aldatzeko asmorik ez duela baieztatu zuen atzo Vasco Pressi eskaintako elkarrizketan. «Are gutxiago autodeterminazio eskubidea onartzeko bada», gehitu zuen.

MADRIL



Egiagarai Espainiako Administrazio Publikoetarako ministroa da.

EFE

✓ «Ezin da politikoki negoziatu terroristekin, baina Gobernu baten eginkizuna da terrorismoa desagertzeko lagun dezakeen guztia bultzatzea».

Gobernu zentralak autodeterminazio eskubidea onartzeko esparru juridikoa aldatzeko asmorik ez duela? «Ez, ez dugu Konstituzioa aldatzeko asmorik, are gutxiago galderaren zentzuan», ihardetsi du Egiagaraik. «Konstituzioak euskal herritarrek beren historian izan duten autogobernuri zabalena izateko bidea jarri du», gehitu du ministroak.

NEGOZIAZIO POLITIKORIK EZ ETAREKIN Azken egunotan, argitara emandako Etxabe eta Urrutia presoekin solasei buruz, «aurretik jakinak ziren gauzak erabat baieztatu dituzte, baina gero eta lotsa gutxiagoz adierazten dira», azpimarratu du Egiagaraik. «Hemen mugitu

bat badagoela, eta hori ona da, gizartearen eraginatik kanpo dagoen talde bat ez dela adierazten bait du», erantsi du. Ez du uste, ETAko zuzendaritzak «kasu egingo» dienik Urrutia eta Etxabe presoekin «deiei».

Filtrazio hauekin, batzuren ustez, Espainiako Gobernuak negoziatzaileak prestatzen ari daitekeela gogoratu zaionean, Juan Manuel Egiagaraik «espekulazioak» direla esanez erantzun du. ETA eta Espainiako Gobernuaren artean Aljerren osatu zen Elkarrizketa Politikotarako Mahaian parte hartu zuela inoiz gezurtatu ez duen PSOeko buruzagiak honela dio: «ETAn zerbait gertatzen den bakoitzean edo ETAn buruz hitz egiten den bakoitzean ebietazina da espekulazioak sortzea, batez ere batzuek horrela propaganda egitea behar dutelako eta beste batzuek inozoki hori agerian jartzen laguntzen dutelako. Bizitzan hainbeste aldiz errepikatzea suertatu zaidana esango dut berriz: ezin da politikoki negoziatu terroristekin, baina Gobernu baten beharrezko eginkizuna da terrorismoa desagertzeko lagun dezakeen guztia bultzatzea».

Arzalluz: «Madril oker dago hemen ez dela ezer gertatzen uste badu»

BILBO

Xabier Arzalluz EAJko buruak Madrileko Gobernuari Estatutua irakurtzean «kontuz» ibiltzeko esan zion, Europar izan diren aldatketen ondoren ere «argudio barik» zentralismoarekin segitzen dutela egotzi ondoren.

«Hemen ezer gertatzen ez dela uste badute —ziurtatu zuen Arzalluzek—, euskaldunak betirako diskutatzen egongo gara; gure Estatutua eurek interpretatuta, gure goitik lortu duguna behetik kentzen dugu ikusten geratuko gara uste badute, oker daude. Hortik badoaz, begiratzeko zer egiten duten, ez dugulako nahi egunen batean Touseko presak leher egitea politika arloan».

EAJko lehendakariak Sabino Arana Fundazioak antolatutako 'Euskadi, bidegurutzea' hitzaldi sortako azken hitzaldian egin zituen adierazpenok, ostegun arratsaldean Bilbon.

Arzalluzek azpimarratu zuen Europar «historian paregabeko» aldatketak gertatzen ari direla, eta orain arte ezarritako tabuak gainbeheran datozela gaineratu zuen.

«**DENA ALDATU DA**» Hitzarmenaren batasunaz ezin digute hitz egin gure nahi ez badugu. Dena aldatu da» esan zuen buruzagi jeltzaleak. «Kroaziara kasko urdin espainiarrak bidaltzeko prest daudenez, ez dut ikusten zein desberdintasun argudia dezaketen arazo hori Katalunia edo Euskadiren kasuetatik bereizteko», argudiatu zuen.

Xabier Arzalluzek Felipe Gonzalezek kontraesana izan duela eritzi zion, Alemania birbaitzea onartu arren, eskubide berori euskaldun eta kataluniarrei ukatzen dielako.

Izan ere, Arzalluzen ustez



Xabier Arzalluz.

«norberaren askatasunaren hurrengo pausua kolektibo bateratuen askatasuna da, berezko nortasuna izan eta beren etorkizuna antolatu nahi duten kolektiboena».

Nazionalismoa nazioarteko desoreka sortzea leporatzen diete adierazpenek ere kritikatu zituen Xabier Arzalluzek. «Historiak garbi uzten du handiak izan direla beti gerra egin dutenak» adierazi zuen. Nazionalismoa fanatismoa leporatu izanaz, «arriku horretan ideologia guztiak eror daitezke» esan zuen Arzalluzek.

«Aitzitik, nazionalismoa askatasuna da» gaineratu zuen Arzalluzek. «Nik ez nuke nahi esaterako —segitu zuen— Nafarroa bere borondatearen kontra egotea gurekin; lotsa emango lidake. Baina horrek beste guztia-erentzat ere balio du. Tabu guztiak hautsi dira, eta amerikar batek zioen bezala, abuztuaren 21etik aurrera dena da posible Europan».

Autobideko segurtasun kontratua aldatu egin nahi du Diputazioak

DONOSTIA

Irurtzun-Andoain autobideko lanetarako kontratatu zen Guadiamar segurtasun enpresako zuzendaritzarekin bilduko da datorren astean Gipuzkoako Diputazioa. Egungo kontratua berriro negoziatu eta egoera berri batera egokitu nahi du Diputazioak.

Guadiamar enpresak ehun milioi pezeta inguru (bost milioi libera inguru) jasotzen du hilean bere lanagatik. Berrogehi lagun inguru dago orain zerbitzu hori betetzen eta lanak aurrera egin ahala jende gehiago egongo da. Autobide guztia egiterako segurtasuneari 10.000 milioi pezeta (500 milioi libera) gastatuko dela uste da.

Segurtasunerako kontratu hau lanak iraun bitartean egongo da indarrean puntu batean jasotzen denez, baina egoera normala izan balitz segurtasun hori ez litzateke beharrezkoa izango. Enpresari orain

hilabete inguru neurri horiek erretira zitzaten eskatu zioten Gipuzkoako Diputazioari, beraiek bazituztelako lanean zeuden bitartean zainketa neurri bereziak.

Hori dela eta, Diputazioako ordezkariak kontratuaren edukia aldatu nahi dute eta horretarako zenbait txosten landu dute dagoeneko zerbitzu juridikoetako arduradunek. Lanak hasiak dauden inguruetan hogeitamar makina inguru dago dagoeneko eta laurogei pertsona inguru.

Nafarroako Gobernuak bere aldetik, Segurisa enpresak nafar zatiko zainketa lanetarako zuen kontratua eten egin du. 1989ko irailean egin zuen kontratu berezi hau eta 4.000 milioi pezeta (200 milioi libera inguru) irabazia eman dio aipatutako enpresari. Gastuak uste baino askoz ere handiagoak izatea izan da Gobernuko Herrilantetarako Kontseilariak kontratua indargabetzeko arrazoietako bat.

EAJk Konstituzioari baiezkoa ez ematea gaitzetsi du PSEk

DONOSTIA

Jesus Egiguren PSE-PSOeko Gipuzkoako idazkari nagusiak ETArekin mundua monolitikoa den ideiarekin gainbeherakada alderdi demokratikoen batasunak eragin duela esan zuen. Gipuzkoako buruzagi sozialistak Elgoibarren egin zituen atzo adierazpen horiek, Casa del Pueblo, inauguratzeko ekitaldian.

Egigurenek azken aste honetan ETArekin gainean sortutako notiziak izan zuen mintzagai, eta azalduko «dizidendiak» direla eta itxaropentsu zegoela baietsi zuen. Herri Batasunaz ere mintzatu zen Egiguren. Esan zuenez, HBn «aukera desberdinak daude», baina orain arte ETA laguntzea diotenen ahotsak baino ez duela entzun esan zuen jarraian. HBn indarkeriarekin amaitzearen

alde daudenei «agertzea eta idaztea» eskatu zion.

Konstituzioari buruz atzo Konstituzio eguna izan zen askatasunak bermatzen dituela eta Lurralde Autonomoen autogobernua berma ere bazela adierazi zuen. Konstituzioari esker EAk inoiz ezagutu ez duen autogobernua duela ziurtatu zuen eta Kultura, Hezkuntza edo Ekonomia EAk kompetentzi guztiak dituela azpimarratu zuen.

Alderdi Nazionalisten Konstituzioari 1978ko erreferendumean emandako ezetza edota abstentzioa «akatsa» izan zela esan zuen Gipuzkoako buruzagi sozialistak harrez geroztik indarkeriaren aldekoak jokabide hori «erabili dutelako». Autodeterminazioari buruz, «gure nazionalistak hainbeste miresten duten autodeterminazioa» Egigurenen iritziz.

Agintari dominikarrek sarrera eragotzi diote Etxarreni

SANTO DOMINGO

Dominikar Errepublikako agintariak ez zituen utzi Eusebio Etxarren euskal herritarri herrialde horretan sartzen. Ostegunean iritsi zen Etxarren hegazkinez, baina bertako migrazio agintariak Espainiara itzuli zuten.

Atzo iturri ofizialetatik ezagutera eman zenez, Puerto Platako La Union aireportura iritsi zen hegazkin berean itzuli zen. Etxarrenek zenbait urte egin ditu Dominikar Errepublikako Bani izeneko hirian, baina joan den irailaren 12an Espainiara deportatu zuten. Migrazio zuzendaritzak azaldu zuenez, bertan egoteko baimena agortu egin zitzaion.

'La Verdad del Sur' egunkaria zuzendu zuen bertan Etxarrenek, eta bere artikulu gehienetan Joaquín Balaguer-en Partido Reformista Social Cristiano alderdia kritikatu zuen.